

KOMUNIKABIDEEN GEHIEGIZKO POLITIZATZEA PROFESIONALITASUNIK EZAREN EZAUGARRIA?

Hauteskundeak izan ditugu oraintsu. Eta propaganda politikoaren oldeak eraso digu alde guztietatik: sail sozial guztiak, gogait eragiteraino, horren oihartzunez bete dira. Telebistak, irratiak, egunkariak izan dira propagandaren ahotsik ozenenak.

Baina gogoeta hau ez dagokio hauteskunde garaiari soilik; hilabeteak asko eta urtebete ere iraun dezakeen kanpaina aurrekoa eta kanpainatik ez den urtean zeharreko garaia ere bete-betean hartzen du kritika honek. Alderdikeriazko politizatzeko nabarmen horren eragileak, estatuko komunikabide nagusien ondoan, Euskadikoak ere badira esan behar.

Arazo honetan etsigarriena zera da: irradi eta telebistaren albiste emankizunak talde politikoen propaganda bihurtu direla.

Zergatik ote? Kazetariak alderdien politikan leporaino sarturik daudelako? Edo zabarkeriagatik, politikarien esamesekin, haien hitz-jarioari esker denbora erraz betetzeko aukera dutelako? Edo eta inolako erizpiderik gabe, txori herritsuen antzera, ajentziek diotena errepikatzen jarriak daudelako?

Dirudenez ez dago bestelako albisterik; kulturari eta gizarteari dagokien berri jakingarririk. Esate baterako, politikaz at, 50.000

pertsonaz osotutako bilera, erlijio girokoa bada batez ere, ez da gai komunikabideetan lekutxo bat hartzeko eta ez da aipatu ere egiten... Baina talde politiko batetako dozena bat edo bi pertsona zerbaitegatik ezadostasuna agertzeko edo manifestazio bat egiteko bilduz gero, komunikabide guztiak, hil edo biziko arazoa bailitzan, hor aritzen dira buru eta bihotz...

Gertakari batzu beren-beregi isiltzen dira beste batzu ozenki aireratzen diren bitartean. Benetan gogo-diktadura antzeko batean murgildurik gaudela esan behar.

Irrati eta telebistatik albisteak barik eritziak ematen dira; askotan, entzunaren entzunez gogait eragiten diguten eritziak. Jendearentzat, herri xehearentzat interesik ez duten talde ezberdinen bilerak iragartzen dira... Baina horiek ez dute garrantzirik gertatu arte; gertatutakoan, orduan ikusi behar komunikabideetan sartzeko interesik dutenentz. Behin baino sarriago, ez dakit non egitekoak diren bilera politikoak iragartzen dira arrandiatsu, baina bilera egin eta gero, komunikabideek ez dute haietaz txintik esaten.

Kazetarien jokaera etsigarria? Zenbait gizarte-gaitan konplexuak dituzten kazetariak? Kazetari itxuran talde politikoaren ahots eta oihulariak? Baina zertan datza kazetarien profesionaltasuna?